

ZERBITZU
KARTA

IGNACIO ALDECOA KULTURA ETXEA

KULTURA ETA KIROL SAILA

araba  álava
foru aldundia diputación foral



IGNACIO ALDECOA
KULTURA ETXEA
CASA DE CULTURA

INFORMAZIO OROKORRA

1. Irismena

Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

2. Erakundearen helburua eta misioa

Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen misioa da herritarrei eskuragarri jartzea informazioa, kultura eta bizi-aldia osoko hezkuntza. Guztientzat irekita dagoen espazioa da, eta bere xedea da askotariko informazio, prestakuntza, aisialdi eta ezagutza beharrak asetzea. Kultura programazioa, liburutegi publikoaren zerbitzua eta ondare bibliografikoaren kontserbazioa eskaintzen ditu.

3. Kartaren erakunde arduradunaren identifikazio datuak

Arabako Foru Aldundiaren Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen Zerbitzua.

INFORMAZIO OROKORRA


4. Zerbitzuen zerrenda

Zerbitzua	Zerbitzuen xehetasunak
JARDUERA SOZIOKULTURALAK Kultura Etxeak eta beste erakunde eta kolektibo batzuek antolatuta	– Hitzaldiak – Ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta abar – Literatura jarduerak – Proiektzio zinematografikoak – Formatu txikiko erakusketak – Formatu txikiko arte eszenikoak
DOKUMENTUAK MAILEGATU ETA KONTSULTATZEA	– Liburuak, prentsa eta aldizkariak kontsultatzea eta irakurtzea – Dokumentu digitalak eskuratzea – Liburuak, aldizkariak, musika eta zinema banaka edo kolektiboki mailegatzea – Liburutegien arteko mailegu bidez beste liburutegi batzuetako dokumentuak eskuratzea – Dokumentuen erreprodukzioa – Erosketa iradokizunak – Dohaintzak jasotzea
PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA	– Erabiltzaileei prestakuntza ematea dokumentuak bilatzeko eta liburutegiko baliabideak erabiltzeko – Bisita gidatuak – Irakurketa gidak eta berritasunen buletinak – Funts propioen erakusketak (urteurrenak, ekitaldiak, gaiak eta autoreak) – Sarbide elektronikoa katalogora eta zerbitzu digitalak – Interneten sartzeko postuak eta WIFI konexioa

INFORMAZIO OROKORRA

5. Harremanetarako datuak

Zentroa	Casa de Cultura Ignacio Aldecoa Kultura Etxea
Posta helbidea	Florida pasealekua, 9. 01005 Gasteiz
Telefona	945 18 19 44
Helbide elektronikoa	ccultura@araba.eus
Web orria	www.araba.eus/web/biblioteka
Ordutegi orokorra	Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara Larunbatetan: 09:00etatik 13:30era Abuztuko lehenengo hamabostaldia: arratsaldeetan eta larunbatetan itxita
Nola heldu	Tranbia: Legebiltzarra geltokia Autobusa: Prado geltokia



INFORMAZIO OROKORRA

6. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Eskubideak

- Libreki eta dohain eskuratzea Kultura Etxearen zerbitzuak, inolako diskriminaziorik gabe eta indarreko araudiak ezarritako zehaztapenetan eta baldintzak betez.
- Kultura Etxeko langileen arreta zuzena eta profesionala jasotzea.
- Intimitaterako eskubidea bermatuta izatea. Nahitaezkoa da modu konfidentzialean tratatzea erabiltzaileei emandako materialei eta zerbitzuei buruzko informazioa eta haien datu pertsonalak, ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraituz.
- Kexak edo iradokizunak aurkeztea eta erantzuna jasotzea.
- Zerbitzuak erabiltzeko prestakuntza jasotzea.
- Informazio bibliografikoaren kokapenari eta eskuratzeko moduari buruz informazioa, aholkularitza eta laguntza jasotzea.
- Liburutegiko funtsetan ez dauden materialak eskuratzeko iradokizunak egitea.
- Kultura Etxeko jarduera publikoetan eta irekietan parte hartzea.

INFORMAZIO OROKORRA

6. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Betebeharrak

- Funtsak, ekipoak eta instalazioak erabiltzeko araudia errespetatzea.
- Txartelaren eta haren erabileraren ardura izatea.
- Langileenganako eta erabiltzaileenganako jokaera zuzena izatea.
- Zenbait zerbitzu erabiltzeko identifikatzea.
- Kultura Etxeko funtsak eta zerbitzuak erabiltzean, jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legeria errespetatzea.
- Ez jatea eta ez edatea.
- Kultura Etxean egon bitartean norbere objektu pertsonalen gaineko ardura izatea.
- Bilduman edo instalazioetan ikusitako kalteak zentroko langileei jakinaraztea.
- Gurasoek, tutoreek eta irakasleek adingabekoen edo beren ardurapeko taldearen jokaera gainbegiratu dute.

INFORMAZIO OROKORRA

7. Kartaren hizpide diren zerbitzuei aplikatzekoa zaien araudia (estatukoa eta autonomia erkidegokoa)

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa
- 10/2007 Legea, ekainaren 22koa, Irakurketarena, liburuena eta liburutegiena
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZUA	KONPROMISOA	ADIERAZLEA
KONPROMISO OROKORRAK	Tratu adeitsua eta profesionala ematea, eta gutxienez 10etik 8ko puntuazioa eskuratzea erabiltzaileen gogobetetze inkestan.	Gogobetetze inkestan eskuratutako batez besteko nota, jasotako tratuari dagokionez.
	Kultura Etxean aurkeztutako kontsulta, iradokizun eta kexa guztiei 7 laneguneko epean erantzutea.	Epe barruan emandako erantzunen ehunekoa.
JARDUERA SOZIOKULTURALAK	Urtean, gutxienez 500 jarduera soziokultural eskaintzea adin guztietako herritarrei, haien interesak asetzeko eta izen-ematea duten jardueretan gutxienez 10etik 7ko puntuazioa eskuratzea.	Adin tarteka eskaintzen diren jardueren kopurua.
		Izen-ematea duten jardueretako gogobetetze inkestetan eskuratutako emaitza.

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZUA	KONPROMISOA	ADIERAZLEA
DOKUMENTUAK MAILEGATU ETA KONTSULTATZEA	Gutxienez 5.000 dokumentu berri sartzea dokumentuen funtsean eta bilduma egokitzea herritarren interesak kontuan hartuta. Erabiltzaileen gogobetetze inkestan gutxienez 10 puntutik 7 eskuratzea.	Sartutako dokumentu kopurua zenbatzea (eskuratzeak eta dohaintzak). Gogobetetze inkestako galderan jasotako nota.
	Bibliografia funtsa ordenatuta, ongi seinalizatuta eta egoera egokian mantentzea, eta berritasunak eskuratzeko erraz egotea. Gutxienez 10 puntutik 7 eskuratzea erabiltzaileen gogobetetze inkestan.	Gogobetetze inkestako galderan jasotako nota.
	Liburutegien arteko mailegu zerbitzuaren bidez eskatutako materialak 10 egun baliodunean lortzea eta gorabeheraren bat egonez gero, eskatzaileari jakinaraztea 15 egun baliodun igaro baino lehen.	Epearen barnean ebatzitako transakzioen eta komunikazioen ehunekoa.

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZUA	KONPROMISOA	ADIERAZLEA
PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA	Urtero gutxienez liburutegi funtsen 45 erakusketa eskaintzea.	Urtero programatutako erakusketa kopurua.
	Eguneratuta mantentzea informazio kanalak eta bilduman sartutako programazioa eta berritasunak hedatzea. 10 puntutik 7 eskuratzea gogobetetze inkestan.	Gogobetetze inkestako galderan jasotako nota.

ERABILTZAILEEK HOBEKUNTZAN PARTE HARTZEA

1. Kexen eta iradokizunen sistema

Erabiltzaileek gure zerbitzua hobetzen lagundu dezakete iradokizuna, kexa edo esker ona aurkeztuz, bai aurrez aurre, Kultura Etxean, horretarako dagoen inprimakia erabilita, bai esteka honetan:



2. Hobekuntzan laguntzeko beste modalitate batzuk

- Gogobetetze inkestak betetzea.
- Talde fokaletan parte hartzea.

